

### INDARREAN DAUDEN KONTRATU-MOTAK (KOLEKTIBO BEREZIRIK EZ DUTENAK)

	INDARREAN 2021-12-31 BAINO LEHEN	TRANSIZIO-ALDIA (2021-12-31TIK 2022-03-30ERA)	INDARREAN 2022KO MARTXOAREN 31TIK AURRERA
<b>ALDI BATERAKO KONTRATUAK</b>	<p><b>OBRA-KONTRATUA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Enpresan obrak edo zerbitzuak egiteko, autonomiaz edo bere kabuz.</li> </ul> <p>Iraupena: 3 urte (baina 4 urtera arte luza daiteke hitzarmen bakoitzean).</p>	<p><b>OBRA-KONTRATUA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreko arautzeari eutsi zaio.</li> </ul> <p style="text-align: center;"><b>Gehienez 6 HILABETE.</b></p>	<p><b>OBRA-KONTRATUA:</b></p> <p style="text-align: center;"><u>EZ DAGO ARAUTZE BERRIAN</u></p>
	<p><b>BEHIN-BEHINEKO KONTRATUA EKOIZPEN-GORABEHERENGATIK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Merkatuaren unean uneko eskakizunei, zeregin-pilaketei edo gehiegizko eskaerari erantzuteko.</li> </ul> <p>Iraupena: 6 hilabete (baina 12 hilabetera arte luza daiteke hitzarmen bakoitzean).</p>	<p><b>BEHIN-BEHINEKO KONTRATUA EKOIZPEN-GORABEHERENGATIK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreko arautzeari eutsi zaio.</li> <li><b>Gehienez 6 HILABETE.</b></li> </ul>	<p><b>IRAUPEN MUGATUKO KONTRATUA EKOIZPEN-GORABEHERENGATIK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Une horretan dagoen enpleguaren eta behar denaren artean <b>noizbehinkako eta aurreikusi ezinezko igoera</b>, eta aldi baterako desoreka sortzen duten gorabeherak, betiere oporrak barne hartuta (gehieneko iraupena <b>6 hilabete edo 12</b> hitzarmen bakoitzeko). <b>Noizbehinkako eta aurreikusteko moduko igoera (90 egun urtean).</b></li> </ul>
	<p><b>BITARTEKO LAN-KONTRATUA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak ordeztzeko, edo hautaketa-nahiz sustapen-prozesuan lanpostu bat betetzeko.</li> </ul> <p>Iraupena: langilea falta den denborarako, edo gehienez 3 hilabeterako hautaketa- edo sustapen-prozesu bat dagoenean.</p>	<p><b>BITARTEKO LAN-KONTRATUA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreko arautzeari eutsi zaio.</li> </ul>	<p><b>IRAUPEN MUGATUKO KONTRATUA ORDEZKAPENAGATIK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Izena bakarrik aldatu da; beste guztiari dagokionez, aurreko arautzeari eutsi zaio.</li> </ul>

**INDARREAN DAUDEN KONTRATU-MOTAK (KOLEKTIBO BEREZIRIK EZ DUTENAK)**

	INDARREAN 2022-03-30ERA ARTE	INDARREAN 2022KO MARTXOAREN 31TIK AURRERA
<b>HEZIKETA-KONTRATUAK</b>	<p style="text-align: center;"><b>HEZIKETA ETA IKASKUNTZAKO KONTRATUA</b></p> <p>Kontratuaren helburua langileen lanbide-kualifikazioa izango da, ordaindutako lan-jardueraren txandakatze-araubidearen bidez; enplegurako heziketa-sistemaren edo hezkuntza-sistemaren esparruko prestakuntza jasoko dute.</p> <p>Praktikaldiko kontratu bat hitzartzeko kualifikazio profesionalik ez duten 25 urtetik beherako pertsonak.</p> <p>Enpleguari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitako enplegu-eta prestakuntza-programa publikoetan parte hartzen duten 30 urtetik gorako langileak kontratatu ahal izango dira, heziketa- eta ikaskuntza-kontratuaren bidez.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Iraupena: urtebete eta 3 urte artean.</li> <li>• Lehen urtea: benetako lanaldiaren % 75, gehienez. Bigarren eta hirugarren urteak: benetako lanaldiaren % 85, gehienez.</li> <li>• Probaldiaren iraupena: ezin izango da 2 hilabete baino luzeagoa izan, eta 25 langile baino gutxiagoko enpresetan ezin izango da 3 hilabete baino luzeagoa izan. Hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata, inoiz ez da izango LGS baino txikiagoa, benetan lan egindako denboraren proportzioan.</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>IKAS-EKINEZKO HEZIKETA-KONTRATUA</b></p> <p>Ordaindutako lan-jarduera LHko, <b>unibertsitate-ikasketetako</b> edo ESNeke espezialitateen katalogoko prestakuntza-prozesuekin bateragarri egitea izango du helburua.</p> <p>Lanbidean trebetasuna hartzeko heziketa-kontratu bat hitzartzeko lanbide-kualifikaziorik (eskaten diren tituluen edo ziurtagiriaren bidez egiaztatuta) ez duten pertsonak.</p> <p><b>30 urtera arteko pertsonak</b>, baldin eta sinatzen den kontratuaren helburua 1. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzea bada, ESNeke prestakuntza-espezialitateen katalogoan sartuta dauden ikas-ekinezko prestakuntzako programa publiko edo pribatuen bidez.</p> <p>Enpleguari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitako enplegu- eta prestakuntza-programa publikoetan parte hartzen duten 30 urtetik gorako langileak kontratatu ahal izango dira, heziketa- eta ikaskuntza-kontratuaren bidez.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Iraupena: <b>3 hilabete eta 2 urte artean.</b></li> <li>• <b>Lehen urtea:</b> benetako lanaldiaren % <b>65, gehienez.</b> Bigarren urtea: benetako lanaldiaren % 85, gehienez.</li> <li>• <b>Kontratu horietan ez da probaldirik ezarriko.</b></li> </ul> <p>Hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata, inoiz ez da izango LGS baino txikiagoa, benetan lan egindako denboraren proportzioan.</p>

**INDARREAN DAUDEN KONTRATU-MOTAK (KOLEKTIBO BEREZIRIK EZ DUTENAK)**

	INDARREAN 2022-03-30ERA ARTE	INDARREAN 2022KO MARTXOAREN 31TIK AURRERA
<b>HEZIKETA-KONTRATUAK</b>	<p><b>PRAKTIKALDIKO KONTRATUA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratua hasi aurreko bost urteetan lortu behar izan da titulua (desgaitasuna duten pertsonen kasuan, aurreko 7 urteetan).</li> <li>Balio duten tituluak: unibertsitateko titulua edo erdi- nahiz goi-mailako lanbide-heziketako titulua, edo ofizialki baliokidetzat onartutako tituluak (indarrean dagoen hezkuntza-sistema arautzen duten legeen arabera), edota profesionaltasun-ziurtagiria (5/2002 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera). Tituluok jarduera profesionalerako gaitu beharko dute.</li> <li>Iraupena: 6 hilabete eta 2 urte artean.</li> <li>Soldata: hitzarmenaren arabera, lehen urtean gutxienez % 60koa eta bigarren urtean gutxienez % 75ekoa (lanpostu beraren edo baliokidearen soldatarekin alderatuta).</li> </ul>	<p><b>LANBIDEAN TREBATZEKO HEZIKETA-KONTRATUA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratua hasi aurreko 3 urteetan lortu behar izan da titulua (desgaitasuna duten pertsonen kasuan, aurreko 5 urteetan).</li> <li>Balio duten tituluak: PRAKTIKALDIKO KONTRATUAN ZEHAZTUTAKOAK. <b>Ezin izango da kontratu hori egin enpresan jarduera berean 3 hilabetetik gorako esperientzia profesionala edo heziketa izan duen pertsonarekin; ondorio horietarako, ez dira zenbatuko kontratu hau egiteko aukera ematen duen titulua edo ziurtagiria lortzeko eskatzen den curriculumeko prestakuntza- edo praktika-aldiak.</b></li> <li>Iraupena: 6 hilabete eta urtebete artean.</li> <li>Soldata: <b>hitzarmenean finkatutakoa, eta, halakorik ezean, betetako eginkizunei dagokien lanbide-taldearena eta ordainsari-mailarena. Nolanahi ere, ez da inoiz izango ikas-ekinezko heziketa-kontratueterako ezarritako gutxieneko ordainsaria baino txikiagoa, ezta LGS baino txikiagoa ere, benetan lan egindako denboraren proportzioan.</b></li> </ul>

### INDARREAN DAUDEN KONTRATU-MOTAK (KOLEKTIBO BEREZIRIK EZ DUTENAK)

	INDARREAN 2022-03-30ERA ARTE	INDARREAN 2022KO MARTXOAREN 31TIK AURRERA
	<b>KONTRATU MUGAGABEA</b>	<b>KONTRATU MUGAGABEA</b>
<b>KONTRATU MUGAGABEAK</b>	<p style="text-align: center;"><b>ALDIZKAKO KONTRATU FINKOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtero errepikatzen diren lanak egiteko, baina ez data berberetan, enpresaren jarduera-bolumen arruntaren barruan.</li> <li>• Langileak lanean hasteko, jarduerarako deia egiten da.</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>ALDIZKAKO KONTRATU FINKOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sasoiko lanak edo sasoiko ekoizpen-jarduerari lotutakoak egiteko da kontratu hori; <b>bestela, izaera hori ez duten, baina aldizkako prestazioa izan arren, gauzatze-aldi jakin, zehatz edo zehaztugabeak dituzten lanak egiteko.</b></li> <li>• Langileak lanean hasteko, jarduerarako deia egiten da.</li> <li>• <b>Aldizkako kontratu finkoa egin ahal izango da merkataritzako edo administrazioko kontratei lotutako zerbitzuak emateko, baldin eta, horiek aurreikusteko modukoak badira eta enpresaren ohiko jardueraren parte badira.</b></li> <li>• <b>ABLEen bitartez egin ahal izango dira.</b></li> </ul>